



Petición on-line para salvar al único periódico escrito en gaélico, en peligro de desaparición por la posible retirada de subvenciones públicas. Nosotras y nosotros conocemos perfectamente la importancia de disponer de medios de comunicación monolingües para la supervivencia de las lenguas minorizadas. En la siguiente dirección podrás adherirte y expresar tu solidaridad con el pueblo irlandés por la recuperación del gaélico.

Irlandako gaelikoa ez da oso hizkuntza osasuntsua, ez hizkuntza handiekin konparatuz, ezta euskara bezalako txiki batzuekin konparatuta ere. Urteetan hiztunak galduz joan da ia desagertzeraino. Aurrean izan duen arerioa ere ez da edozein: ingelesa. Hala ere, Euskal Herriko eredu hartu eta Berria egunkaria bezalako proiektu bat sortu zuten duela urte batzuk hizkuntzaren inguruko zenbait eragilek. Jendeak bere poltxikotik dirua jarri eta egunkari bat sortzea erabaki zuten: /Lá Nua/ izenekoa. Hala ere, egunkari honek ezinbestekoa du dirulaguntza publikoa, bai Ipar Irlanda eta baita Irlandako Errepublikak emandakoa. Gauzak horrela, aurrean, Ipar Irlandako administrazioak dirulaguntza murriztea erabaki du eta egunkari hau bi astetan ia itxi egin beharko dute. Martxoko lehen astean azken aleak aterako dituzten beldur dira egunkariko langileak. Hizkuntza txikia izanik, kalean duen presentzia apurra guztiz galduko litzateke, horrek dituen eragin guztiekin. Egunkariari dirulaguntzak ez kentzeko eskatuz, Interneten sinadurak biltzen hasi dira irlandarrak. Guk ere badakigulako zein zaila den hizkuntza txiki bat bizirik mantentzea, eta hau egiteko, zein garrantzitsua den hedabideak izatea, gure babesa eman behar geniekeela uste dut. Babesa eman nahi duenak beheko helbidean bere sinadura jarri eta email hau pasako balu, elkartasuna erakusteko modu polita litzateke.

<http://www.petitiononline.com/In0502/petition.html>